

BALIOZKO PROPOSAMENA

Gaur egun, gazte askok arazoak dituzte eguneroko gauzak beraien kabuz egiteko, hala nola sukaldatzeko, arropa lisatzeko, arropa-garbigailua jartzeko, etab. Gainera, gero eta gazte gehiago geratzen dira etxean bakarrik, gurasoak lanean daudelako edo oporretara doazelako. Beraz, ezin dituzte eguneroko gauzak egin.



Imajinatu 14 urteko gazte bat zarela, zure gurasoak sarritan bidaiatu egin behar dutela lanaren ondorioz. Ez duzu inor laguntzeko eta ez dakizkizu eguneroko gauzak egiten.

Guk arazo horiei konponbidea ateratzeko tailer bat proposatzen dugu. Tailer honetan sukaldatzen, arropa lisatzen, arropa-garbigailu bat jartzen, zorua garbitzen eta komunak garbitzen ikasiko dute ikasleek. Gainera, garbigailurako, zorua garbitzeko eta komuna garbitzeko zer produktu behar diren erakutsiko diegu. Gure ustez, jendeak ez du horrelako gauzetan pentsatzen eta oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu.



Hasteko, sukaldatzen ikasteko, janari osasuntsua eta beharrezkoak direnak erakutsiko dizkiegu. Adibidez: dilistak, babarrunak, txitxirioak, makarroiak, pure ezberdinak eta ondoren, xerra, solomoa, oilaskoa etab. Horretarako, gas eramangarri bat erabiliko dugu, eta harekin batera gas-bonbona txikiak, modu seguruan eta errazean sukaldatu ahal izateko.

Ondoren, arropa lisatzen ikasteko lisaburdina beharko dugu. Hala ere, benetako lisaburdina erosi beharrean, maketen bidez sortutako lisaburdina erabiliko dugu, ikastola askotara joan behar dugulako eta ezin ditugulako lisaburdin asko erosi. Maketen bidez egitea erabaki dugu, mugimendu garrantzitsuak erakutsi behar dizkiegulako. Horren bidez, arropa ondo geratzeko eta zimurrik ez egiteko behar diren mugimenduak erakutsiko dizkiegu. Gainera, lisatzeko beharrezkoak diren beste material batzuk ere erabiliko ditugu: arropa jartzeko taula bat eta lisaburdina entxufatzeko base bat.



Arropa-garbigailua nola erabiltzen den irakasteko, arropa-garbigailu bat eramango dugu. Horrela, ikasleek argi ikusi ahal izango dute non eta nola sartu produktuak.

Zentrifugaketa nolako den irakatsiko diegu, zein botoiei eman behar zaien, eta nola aukeratu arropa-garbigailuaren abiadura, azkarrago edo motelago egiteko. Horretarako, arropa erabili beharko dugu erakusteko, eta jaboia eta detergentea eramango ditugu, bakoitza non sartzen den modu praktikoan erakusteko.

Zorua garbitzeko, teknika egoki batzuk irakatsiko dizkiegu. Horretarako, fregona bat eramango dugu, bere kuboarekin batera, eta fregona ondo ixurtzeko modua ere erakutsiko dugu. Zorua garbitzeko produktu batzuk ere beharko ditugu, kuboan nahasketa egokia egiteko, eta ikasleek ikusi ahal izango dute nola prestatu eta aplikatu garbiketa irtenbidea modu seguruan eta eraginkorrean. Horrek etxean zorua modu zuzenean eta seguruan garbitzeko oinarritzko trebetasunak emango dizkie.



Bukatzeko, komunak nola garbitzen diren erakutsiko diegu. Zein produktu erabili behar diren komunera botatzeko zehaztuko dugu. Komunak garbitzeko, trapu bat erabiliko dugu ispilua garbitzeko, eta komuna bera garbitzeko “Don Limpio” bezalako produktuak erabiliko ditugu. Era berean, komuna garbi mantentzeko aholku praktikoak ere emango ditugu, ikasleek etxean modu eragingarriak mantendu ahal izateko.

Tailer berri hau ikastoletan emango dugu, beraz, klaseak euskaraz izango dira. Horrela kontzeptuak argi eta ondo ulertuko direla uste dugu, baina ikasle batek euskaraz komunikatzeko arazoak edukiko balitu lasai asko gaztelaniaz komunikatu gaitezke. Bakoitzak lau klase emango ditu astean, eta astean bitan joango gara ikastola berdinerara; horrela, hilabete osoa ibiliko gara ikastola berdinean.

Tailer honen bidez, gure ikasleek gauza erraz asko ikasiko dituztela uste dugu. Hori haientzat ez ezik, gurasoentzat ere onuragarria da. Jendeari tailer honen berezitasuna erakutsi nahi diegu eta haiek gudan konfiantza edukitzea. Azkenean etorkizunerako onuragarria izan daiteke tailer hau ezagutaraztea eta etorkizunean gure tailerrari esker inspirazioak egon daitezke gazteei lagundu ahal izateko.

Tailer hau ez dugu inoiz ikusi, orduan erabaki dugu gure beste lanak ez uztea eta oraingoz estra batean uztea. Egia da proiektu honetan ahalik eta gehien inplikatu nahi dugula, orduan, ez dugu baztertzen urte gutxi barru bakarrik honetan aritzea, badaezpada poliki hasi nahi dugu.